Astigarragako Udala
Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2013IPLE0006
**Eguna:** 2013-06-27
**Ordua:** 19:00 – 19:35
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EHBILDU |
| - Maite Olatziregi Esparza | EHBILDU |
| - Agin Rezola Laburu | EHBILDU |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | EHBILDU |
| - Berta Arozena Bergara | EHBILDU |
| - Isabel Otero Glorie | EHBILDU |
| - Raul Redín Hernández | EHBILDU |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | Hamaikabat |
| - Imanol Lizarralde Marín | Hamaikabat |

**Bertaratu ez direnak**

-

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2013ko maiatzaren 29ko aktaren onarpena** | **1** | Aprobación del acta de 29 de mayo de 2013 |
| **2012ko Kontu Orokorraren onarpena** | **2** | Aprobación Cuenta General 2012 |
| **Astigarragako Hiri Antolaketako Plan orokorraren aldaketa zehatza, HEA 12 "Mendiaundi-Anibar" eta HEA 13 "Bidebitarte" eremuei dagokiena** | **3** | Modificación puntual del Plan General de Astigarraga, referida a la A.I.U 12 "Mendiaundi-Anibar" y a la A.I.U. 13 "Bidebitarte" |
| **BOE, erosketa erregimenean, zozketatzeko oinarrien onarpena** | **4** | Aprobación de las bases para el sorteo de viviendas de VPO en régimen de compra |
| **Informazio, galdera eta eskariak** | **5** | Información, ruegos y preguntas |

## Esan-eginak eta erabakiak

**1. 2013ko maiatzaren 29ko aktaren onarpena**

Akta onartu egin da aldeko 8 botorekin (7 EHBildu, 1 EAJ/PNV) eta dagokigun osoko bilkurara ez bertaratzeagatiko 3 abstentziorekin (2 Hamaikabat, 1 EAJ/PNV).

**1. Aprobación del acta de 29 de mayo de 2.013**

Con 8 votos a favor (7 EHBilbu y 1 EAJ/PNV) y 3 abstenciones (2 Hamaikabat y 1 EAJ/PNV) por no asistencia al pleno en cuestión, se aprueba el acta.

**2. 2012ko Kontu Orokorraren onarpena**

Kontu Berezien Batzorderen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

1.- 2012ko Kontu Orokorra onartzea.

2.- 21/2003 Foru Arauak, 63.4 artikuluak xedatzen duenaren arabera Udalak behar bezala onetsitako Kontu Orokorraren berri emango dio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

Irizpena bozkatu ondoren, onartu egin da aldeko 9 botorekin (7 EHBILDU, 2 EAJ/PNV) eta kontrako 2 botorekin (Hamaikabat).

EAJ/PNVko zinegotziak adierazi du gobernu-taldearen plangintzarekin eta 2012ko ekitaldian onartutako zenbait jardunekin ados ez egon arren, kontuei dagokienez ez dutela ezer esatekorik eta aldeko botoa eman dutela.

Hamaikabateko zinegotzi Bixente Arrizabalagak adierazi du kontrako botoa eman dutela 2012an atez ateko sistema ezartzeko jardunak hasi zirelako eta sistema horrekin ados ez daudelako.

**2. Aprobación Cuenta General 2012**

Se remite para su aprobación el dictamen de la Comisión Especial de Cuentas, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Aprobar la Cuenta General 2012.

2.- De conformidad a lo dispuesto en la N.F. 21/2003, en su artículo 63.4 el Ayuntamiento rendirá al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la Cuenta General debidamente aprobada en los términos que establece su normativa específicamente.

Sometida a votación es aprobada con 9 votos a favor (7 EHBILDU y 2 EAJ/PNV) y 2 votos en contra (Hamaikabat).

La concejal de EAJ/PNV manifiesta que a pesar de no estar de acuerdo con la planificación del equipo de gobierno y algunas actuaciones acordadas durante el ejercicio 2012, en materia de cuentas no tiene nada que alegar y han votado a favor.

El concejal de Hamaikabat Bixente Arrizabalaga manifiesta que han votado en contra dado que durante el año 2012 se iniciaron las actuaciones para implantación del PaP y no están de acuerdo con ello por lo que han votado en

contra.

**3. Astigarragako Hiri Antolaketako Plan orokorraren aldaketa zehatza, HEA 12 "Mendiaundi-Anibar" eta HEA 13 "Bidebitarte" eremuei dagokiena**

**3. Modificación puntual del Plan General de Astigarraga, referida a la AIU 12 "Mendiaundi-Anibar" y a la AIU 13 "Bidebitarte"**

Hirigintza batzorderen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

**Lehenengoa**.- Astigarragako Plan Orokorreko Testu Bateginaren HEA 12 – Mendiaundi-Anibar – eta HEA 13 – Bidebitarte- eremuetan uneko Aldaketa hasierako izaeraz onartzea, 2013ko ekainaren 19ko datarekin egindako txosten teknikoari eta herrian partehartze prozesua egiteari baldintzatua.

***Primero.-*** Aprobar inicialmente el Expediente de Modificación del P.G.O.U para el Área A.I.U 12 "*Mendiaundi-Anibar*" y al A.I.U 13 *"Bidebitarte",* condicionado al informe del Arquitecto municipal de fecha 19 de junio de 2013 y al sometimiento de un Programa de Participación Ciudadana.

**Bigarrena**.- Dokumentua argitara ematea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedapen edo zirkulazio handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz hilabeteko gutxieneko epean, azken argitalpenetik zenbatzen hasita.

***Segundo.-*** Someter el Documento a información pública, por medio de su publicación en el B.O.G y en el diario o diarios de mayor difusión o mayor circulación del territorio durante el ***plazo mínimo de un mes*** a partir de la última publicación.

**Hirugarrena**.- Eskumen sektorialeko Administrazio Publikoei, esate baterako, Uraren Euskal Agentziari, Kostalde eta Itsasoaren Iraunkortasuneko Zuzendaritza Nagusiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari txostena eskatzea.

***Tercero.-*** Solicitar informe a las Administraciones Públicas con competencia sectorial, tales como la Agencia Vasca del Agua, la Dirección General de sostenibilidad de la Costa y el Mar, y el Departamento de Movilidad e Infraestructuras viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Puntu honetan, Bixente Arrizabalaga zinegotzia interesdun denez, aretotik kanpora atera da.

En este punto por su posición de interesado se ausenta de la sala el concejal Bixente Arrizabalaga.

Alkateak adierazi du legealdiko bi urteren ondoren aurkeztu dutela Plan Orokorraren aldaketa hau; izan ere, aldaketa honek Astigarragarako DBH ekipatzeko erreserba-lurzoruaren plangintza egitea ahalbidetuko du eta bestalde, indarrean

El alcalde manifiesta que tras dos años de legislatura han presentado esta modificación puntual al Plan General que va a posibilitar la planificación del suelo de reserva para equipamiento de DBH para Astigarraga y por otro lado va a permitir

dagoen Plan Orokorrak Bidebitarteko industria uzten zuen kolokako egoera argituko du.

despejar la duda del precario en que colocaba a la industria de Bidebitarte con el Plan General vigente.

Imanol Lizarralde zinegotziak galdetu du egokia ote den aipatutako aldaketa idatzi duen pertsona berak, kasu honetan, Nekane Azarolak, balioespen juridikoa egitea.

El concejal Imanol Lizarralde pregunta si es adecuado que quien ha redactado la modificación en este caso Nekane Azarola, haga a su vez la validación jurídica.

Idazkariak adierazi du barne-prozedurak ezartzen duela aholkulari juridikoak balioetsi behar dituela hirigintza-irizpideak; alabaina, kasu honetan idazkariak igorri du txosten juridikoa eta berak balioetsi du aholkularitza juridikoak igorritako balioespen-txostena ere. Idazkariak igorritako txostenean egiten den ohar batean adierazten da irizpenean proposatzen dela dokumentua gutxienez hilabeteko epean jartzea jendaurrean baina ez dela berariaz zehazten 2/2006 Legearen 108-110 artikuluetan aurreikusitako herritarren partaidetzako prozesuak gara daitezen behar den jendaurrean jartzeko epea; beraz, alderdi hori konpondu beharko litzateke. Txostenaren amaieran aipatzen da erabaki hori onartzeko udalbatzarreko kideen legezko gehiengo osoaren aldeko botoa behar dela, 7/85 Legearen 47.2.11 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Manifiesta el secretario que el procedimiento interno fija que la asesora jurídica valide los dictámenes de urbanismo, no obstante, en este caso el propio secretario ha emitido informe jurídico y valida tambien el informe de validación emitido por la asesoría jurídica. En el informe emitido por el secretario se hace la observación que el dictamen propone someter el documento a información pública por el plazo mínimo de un mes; aspecto que no concreta específicamente el plazo de exposición pública para que los procesos de participación ciudadana previstos en los art. 108-110 de la Ley 2/2006, puedan desarrollarse, por lo que este aspecto debería subsanarse. Concluye el informe reseñando que la aprobación de este acuerdo requiere el voto favorable de la mayoría absoluta legal de miembros de la Corporación Municipal a tenor de lo dispuesto en el art. 47.2.11 de la Ley 7/85.

Alkateak adierazi du partaidetza-prozesuak uztailean hastea aurreikusi duela eta jendaurrean jartzeko epea urte honetako irailaren 6ra arte irautea proposatu du.

El alcade señala que tienen previstos que los procesos participativos arranquen en julio y propone que el plazo de exposición se mantenga hasta el 6 de septiembre del presente año.

Epea zehaztu ondoren, irizpena bozkatu eta onartu egin da, EHBILDUko eta EAJ/PNVko aldeko botoekin eta Hamaikabateko zinegotziearen abstentzioarekin.

Con la determinación del plazo se somete a votación el dictamen que es aprobado con los votos a favor de EHBILDU y EAJ/PNV y la abstención del concejal de Hamaikabat.

**4. <u>BOE, erosketa erregimenean, zozketatzeko oinarrien onarpena</u>**

Osoko bilkuran bertaratu da Bixente

**4. <u>Aprobación de las bases para el sorteo de viviendas de VPO en régimen de compra</u>**

Se incorpora al pleno el concejal Bixente

Arrizabalaga zinegotzia.

Hirigintza batzorderen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Lehenengoa.- Ergobia Ibilbidea HEA 9ko a.2/BOE-1 lurzatian Erregimen orokorreko Babes ofizialeko 32 etxebizitza zozketatzeko oinarriak onartzea.

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedapen edo zirkulazio handiena duen egunkarian argitaratzea interesatuek eskabidea aurkezteko epea 2013ko irailaren 6a arte zabalduaz.

Arrizabalaga.

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Aprobar las Bases para el sorteo de 32 viviendas de protección oficial del área AIU 9 “Ergobia Ibilbidea” parcela A.2/VPO-1 en régimen de compra.

Segundo.- Publicar las Bases en el BOG y en el diario o diarios de mayor difusión o mayor circulación del territorio, ampliando el plazo de presentación de solicitudes hasta el 6 de septiembre de 2013.

Idazkariak hartu du hitza eta adierazi du onartu behar diren oinarrien 3. idatz-zatian (eskatzaileek Astigarragarekin duten loturaren inguruko eskakizunari dagokiona) honako hau jasotzen dela:

“titular gisa azaltzen den eskatzaileetako batek gutxienez Astigarragarekin ondoren zehazten den honako lotura hauetako bat izan beharko du:

a) Astigarragako udalerrian erroldatua egotea:
etenik gabeko urtebetez, oinarriak argitaratutako dataren aurretik.
b).- Etenik gabeko gutxienez 10 urtez edo txandakako 15 urtez erroldatuta egon izana egiaztatzea”.

Idazkariak adierazi du idatz-zati horiek kontraesanezkoak direla; izan ere, a) idatz-zatiaren arabera nahikoa da etenik gabeko urtebetez erroldatuta egotea eta aldiz, b) idatz-zatiaren arabera gutxienez etenik gabeko 10 urtez erroldatuta egotea eskatzen da.

Idazkariak honako hau proposatu du:

Interviene el secretario señalando que las Bases que se someten a su aprobación, en el apartado 3 relativo al requisito de que los solicitantes y la vinculación con Astigarraga, se recogen en las Bases:

“una por lo menos de las que solicite y deba figurar como titular, ha de tener vinculación con Astigarraga en alguna de las formas que a continuación se especifican:

a).- Empadronamiento en el municipio de Astigarraga durante:
1 año ininterrumpido anterior a la fecha de publicación de las bases.
b).- Personas que acrediten un mínimo de 10 años de empadronamiento ininterrumpido o 15 alternos”.

Señala el secretario que estos apartados son contradictorios al ser suficiente según el apartado a) 1 año de empadronamiento ininterrumpido y en cambio en el apartado b) se pide un mínimo de 10 de empadronamiento ininterrumpido.

El Secretario propone:
1º.- Que el texto precitado se sustituya por

1.- Aurretik aipatutako testuaren ordez honako hau jasotzea:

el siguiente:

## ERROLDATZE BIDEZKO LOTURA ASTIGARRAGAREKIN
## VINCULACION CON ASTIGARRAGA VIA DE EMPADRONAMIENTO

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1.- OINARRIEN DEIALDIAREN DATAN ERROLDATUTA DAUDENAK<br>1º.- PARA LOS ACTUALMENTE EMPADRONADOS A FECHA DE LA CONVOCATORIA DE LAS BASES | | | |
| | | Eskakizuna<br>Requisito | Egiaztapena<br>Acreditación |
| Erroldatzea<br>Empadronamiento | a) | Etenik gabeko urtebetez, oinarriak argitaratutako dataren aurretik.<br>1 año ininterrumpido anterior a la fecha de publicación de las bases | Errolda-ziurtagiri historikoa.<br>Certificado de empadronamiento histórico |
| | | | |
| 2.- OINARRIEN DEIALDIAREN DATAN ERROLDATUTA EZ DAUDENAK<br>2º.- PARA LOS ACTUALMENTE NO EMPADRONADOS A FECHA DE LA CONVOCATORIA DE LAS BASES | | | |
| | a) | **Udalerrian** gutxienez **etenik gabeko** 10 urtez **erroldatuta egon izana** egiaztatzea<br>Acreditar un mínimo de 10 años **ininterrumpidos empadronado en este municipio** | Errolda-ziurtagiri historikoa<br>Certificado de empadronamiento histórico |
| | b).- | **Udalerrian** gutxienez TXANDAKAKO EDO ETENDAKO 15 urtez **erroldatuta** egon izana egiaztatzea<br>Acreditar un mínimo de 15 años ALTERNO O INTERRUMPIDOS DE **empadronamiento en este municipio** | Errolda-ziurtagiri historikoa<br>Certificado de empadronamiento histórico |
| | | | *1986. urtea baino lehenagoko errolda-ziurtagiriak Donostiako udalean eskatuko dira eta urte horren ondorengoak Astigarragako udalak egingo ditu.<br>*Las acreditaciones de empadronamiento anteriores al 1986, se solicitarán al ayuntamiento de Donostia y las posteriores se expedirán por el ayuntamiento de Astigarraga. |
| | | | |

## ASTIGARRAGAN LAN EGITEAREN BIDEZ LORTUTAKO LOTURA ASTIGARRAGAREKIN
## VINCULACION CON ASTIGARRAGA VIA TRABAJO EN ASTIGARRAGA

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | Egiaztapena<br>Acreditación |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Astigarragan lan egitea<br>Trabajo en Astigarraga | | Azken 5 urteetan 3 urtez **Astigarragan lan egin izana** egiaztatzea **eta kontratua indarrean izatea**<br>Acreditación que en el plazo de los últimos 5 años haya **trabajado 3 años en Astigarraga y tenga contrato en vigor** | Lan-bizitza, kontratua indarrean dagoela egiaztatzea, enpresa-ziurtagiria<br>Vida laboral, acreditación de la vigencia de contrato, certificado de empresa . |

2.- Eskaerei eta zozketan parte hartzeari dagozkion 5. eta 7. idatz-zatietan hurrenez hurren jasotzen diren 20 eguneko epeen aipamenen ordez irailaren 6ko data jaso behar da irizpenari jarraiki.

2º.- Que las referencias de plazos de 20 días que figuran en los apartados 5, y 7 relativas a Solicitudes y Participación de Sorteo, respectivamente: deben sustituirse por el 6 de setiembre, conforme al dictamen.

Alkateak proposatu du idazkariak oinarriei buruz proposatutako aldaketak onartzea; onarpen hori osoko bilkuraren esku jarri du eta aho batez onartu da irizpena aipatutako aldaketekin.

El alcalde propone aceptar las modificaciones a las bases propuestas por el Secretario y somete al Pleno para su aprobación, siendo aprobado, por unanimidad, el dictamen con las modificaciones precitadas.

## 5. Informazio, galdera eta eskariak

5.1 Bixente Arrizabalagak erregistroan San Marko Mankomunitateak bidalitako idatziaz galdetu du. Alkateak erantzun dio deialdia 2012ko Kontu Orokorra onartzeko egin dutela.

5.2 Zorione Etxezarragak adierazi du aurrekoan Atez ateko kudeaketari buruz informazioa eskatu zuen eta batzordean informatu da baina ez da kostuari buruz informaziorik eman.

5.3 Alkateak aurreratu du asteazkenean sokadantzako saioak hasiko direla eta aldez aurretik eskatu du Korporazioko kideei partaidetza aldez aurretik baieztatzea.

## 5. Información, ruegos y preguntas

5.1 El concejal Bixente Arrizabalaga pregunta en relación al escrito recibido en el registro referida a la Mancomunidad de San Marko. Contesta el alcalde que se refiere a la convocatoria para aprobación de la Cuenta General.

5.2 Zorione Etxezarraga señala que anteriormente solicitó información sobre la gestión del PaP y que en comisión se ha dado información pero no se ha facilitado información de los costos.

5.3 El alcalde informa que el próximo miércoles van a comenzar los ensayos para la sokadantza y solicita a los miembros de la Corporación que comuniquen previamente su participación.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2013ko ekainaren 27an

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**